

Parte Zaharra


Gauero itxita

Auzotar askorengan jakin-mina eta kezka piztu du Trinitate plazan jarri dituzten burdinezko atea. Zalantzak argitzeko, plaza berritzeaz arduratzen den Parvisa hirigintza-sozietatera jo dugu.

Trinitate plazako lanak bukatzeaz daude. Lan horiek egiten ari den Reso enpresan esan digutenez, Jazzaldiaren ondoren bukatuko dituzte lanak. Hala ere,


Jazzaldiko kontzertuetarako eta asteburu honetan Grabatuantza ikuskizuna eskaintzeko plaza ireki egingo dute.

Hala ere, auzotarren kezka nagusia plaza ixteko jarri dituzten burdinezko atea dira. Lanak bukatutakoan plaza itxita egongo al da? Plaza erabiltzeko ordua hartu eta giltza



Santa Korda kalean ere atea jarri dute.

Egunean bi orduz itxiko dute plaza, Orixeko ikastolak erabiltzeko




Trinitate plazako sarrera nagusian jarritako burdinezko atea.

eskatu beharko al da? Zalantza horiek argitzeko lñaki Maizarrangana, Parvisako kudeatzailearengana, jo dugu.

Maizak azaldu digunez, plaza egunean bi orduz itxita egongo da, Orixeko ikastolak erabiltzeko. Gainontzeko orduetan, irekita egongo da, nahi duenak erabiltzeko. Beraz, ez da giltzarik beharko. Gauean, ordea, kale-argiak itzaltzen dituztenean, plaza

itxiko dute. *"Trinitate plazaren ezaugarri nagusia kirol eta jolas zonaldea izatea da; ezaugarri hori bermatzeko jarri dugu, hain zuzen, atea. Argirik ez badago, ezin da jolaserako erabili; beraz, gauez, itxita egongo da, beste erabilerarik izan ez dezan"*, azaldu digu. Hala ere, orain arte bezala, hainbat ekitaldi egin ahal izateko gau batzuetan ere ireki egingo dute.



Bidebieta

Orain artean Joan Karlos Gerra kalea bi norabidekoa izan da. Horrek arazo franko sortu ditu. Izan ere, errepidea estu samarra da bi autorentzat eta gainera, debekatuta egon arren, inguruko etxeetako auzotar batzuek kalearen bi alboetan utzi ohi izan dituzte autoak, errepidea are gehiago estutuz. Alboetan utzitako autoek, alde batetik, istripu bat baino gehiago eragin izan dute, gidariek ez baitzuten ikusten kontrako norabide-tik autorik ote zetorren. Bestalde, zabor-kamioi gidariari lana zaildu diote aparkatutako autoek, nekez lortzen zuelako parke aurreko zaborrontzietara iristea.

Joan den astetik udal langi-

le batzuk kalea norabide bakarrekoa dela adierazten duten seinaleak jartzen ari dira Joan Karlos Gerran. Aldaketaren ondorioz, Joan Karlos Gerrako auzotarrek, aldapatik jaitsi behar dute ezinbestean, auzotik ateratzeko gorantz joatea debekatuta baitago. Gainera, kaleetako auzotarrak, orain arte bezala, bi lekutatik atera ahalko dira Bidebietatik: Joan Karlos Gerra kale-tik behera eta kiroldegiaren aurrealdeko biribilgunetik.

Lehen ez bezala, bestalde, Joan Karlos Gerra kalearen hasieran, eskuinean, autoak uztea baimenduta egongo da. Ezkerraldean, berriz, burdinezko hesiak jarri dituzte jendeak autoak utz ez ditzan.

Bakarrik beherantz

Joan Karlos Gerra kalea norabide bakarrekoa izango da aurrerantzean. Ibilgailuak beherantz baino ezin izango dira kale horretatik igaro.